

ETA TIRA ETA TUNBA

Anonimoa

Euskara batuan

1/ Biba, biba, biba, / gure Jaungoikoa! / Biba, biba, biba, / Aita Erromakoa!

Errepika

Eta tira eta tunba / eta tira beltzari, / eta tira eta tunba / eta tira beltzari.

2/ Biba gure fedea / Espainiakoa! / Biba don Karlos eta / jende bertakoa!

3/ Biba, biba don Karlos / eta Margarita, / biba erlijioa, / fuera errepublika!

4/ Biba, biba don Karlos, / hura da gizona, / Espainiako errege / tokatzen zaiona.

5/ Don Karlosek eman du / errege-berba: / gura duela gorde / Jaunaren legea.

6/ Esan, bada, gogotik / beldurra utzita: / Bizi bedi don Karlos / eta andre Margarita!

7/ Biba Karlos Séptimo, / doña Margarita, / laster ikusiko dira / tronuan jarrita.

8/ Aita Santuak berak / koroa ezarrita, / Frantziako arraian / haraino etorrita.

9/ Karlosek esan ei du / Begoña gainean, / laster sartuko dela / Madrilgo kalean.

10/ Ikusi gura nuke / bere entrada, / Madrilgo xango-meheen / arineketa.

11/ Biba Karlos Séptimo / eta Margarita, / Espainian agintzeko / zer pare polita!

Eta tira eta tunba / eta tira beltzari, / eta tira eta tunba / eta tira beltzari.

Jatorrizko bertso-sorta osoa, hemen: ZAVALA, Antonio (1997). [*Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*](#). Oiartzun: Sendoa liburutegia. (501-504).